



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica

Lehenengo aldiz eskaintza elektronikoa egiteko baldintza teknikoak

www.euskadi.net/kontratazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

04

Lehenengo aldiz eskaintza elektronikoa egiteko baldintza teknikoak



1 Izenperen Egiatagiri elektronikoa eskuratzea.

Eskaintza elektronikoa egiteko eta dagozkion dokumentuak sinatzeko, Kontratazio Elektronikorako Sistemak ezagutuko duen Egiatagiri digital bat eskuratu beharra dago.

Izenperen egiatagiri elektronikorik ez baduzu, edo zure ekipo informatikoa eta irakurgailua behar bezala konfiguratu ez badituzu, begiratu honako eranskin honetan: 01 - Izenperen egiatagiri digitala eskuratzea eta konfiguratzea.

2 Izenpe txartel irakurgailua ordenagailuari lotzea

Ordenagailua sistemari lotu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ordenagailuak IZENPE txartel elektronikoa irakurtzeko ahalmena duen txartel irakurgailua edukitzea. Zure ordenagailuak irakurgailurik ez badauka, IZENPEk emango dizu bat, Egiatagiri Digitala lortzen duzunean.

3 Izenperen Sinadura proba egitea

Izenpe egiatagiri digitalari dagozkion elementu guztiak instalatu ondoren, honako urrats hauek egin behar dira:

1. IZENPEren web orrira jo: www.izenpe.com.
2. Egiatagiri digitalak/ Egiat. desk. menuko aukera hautatu. IZENPE erroa.
3. Sinadura proba sakatu.
4. Izena, Abizenak eta Erakundea sartu, Sinatu sakatu aurretik (Herritarren Egiatagiria eduki arren, testuren bat idatzi beharko duzu, edozein, Erakundea atalean, bestela ezin izango baituzu aurrera jarraitu).
5. Sinatu sakatu.
6. PINa sartu.

4 Kontratisten Erregistro Ofizialeko zenbakia jakitea

Eskaintza elektronikoak egin nahi dituztenek Euskal Autonomia Erkidegoko **Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda egon behar dute eta indarrean dagoen egiatagiria eduki behar dute.**

Kontratisten Erregistroko Zenbakia jakiteko, honako bide hauek erabil daitezke:

- Internet bidez Kontratisten Erregistro Ofizialean kontsulta egin, honako web orri hauetan:

www.contratación.info.

www.euskadi.net

- Kontratisten Erregistro Ofizialak enpresari emandako paperezko egiatagirian begiratu.

5 Kontratazio Publiko Elektronikoen Sistemari izena ematea

Izena emanda ez bazaude, begiratu honako eranskin honetan: 02 - Kontratazio Publiko Elektronikoen Sistemari izena ematea.





Un modelo sencillo,
disponible y seguro

6 Windows edo Windows-NT eragiera sistema eta Internet Explorer nabigatzailea dauzkan PCa edukitzea

• Eskaintza elektronikoak egin nahi dituztenek **honako eragiera sistema hauekoren batez hornituriko ordenagailua** beharko dute:

Windows XP SP1 (Service Pack 1, gutxienezko bertsioa).
Windows NT.

• **Ordenagailuak Internet Explorer 5.5 nabigatzailea edo hortik gorakoa izan beharko du, eta Microsoften Java makina birtualaz hornitua beharko du izan (kontuz, testu egokia itxi behar dugu).**

7 Konfiantzazko webguneak aukeratzea

Aplikazioaren funtzio batzuk behar bezala gauzatzeko, ezinbestekoa da Internet Exploreren konfiantzazko webguneen zerrendan www.contratacion.info eta www.ej-gv.net guneak sartzea. Horretarako, Internet Explorer nabigatzailearen Tresnak menura jo beharko dugu:

1. "Internet aukerak" zabaldu
2. Segurtasun karpeta aukeratu
3. "Konfiantzazko webguneak" aukeratu
4. "Webguneak" aukeratu
5. Helbideak sartu:

<https://www.euskadi.net>

<https://www.ej-gv.net>

8 Elementu azaleratuak (pop-up) agerraraztea

Eskaintza egiteko aplikazioa elementu azaleratu gisa ageri da (pop-up). Litekeena da beren nabigatzailean elementu azaleratuak blokeatzeko funtzioa aktibatuta duten erabiltzaileek aplikazioa sartzeko pantailaz ez jabetzea. Hona hemen elementu azaleratuen blokeoa indargabetzeko hiru modu:

1. "Kontrol" tekla sakatuta eduki "Eskaintza elektronikoa" menua sakatzean, pantaila zabal dadin.
2. **Internet Explorer nabigatzaileko "Tresnak" aukera** hautatu, **"Elementu azaleratuak blokeatu"** funtziora jo, eta **"Elementu azaleratuen blokeoa indargabetu"** sakatu.
3. Internet Explorer nabigatzailean "Helbidea" funtzioa aukeratu, pantailak "Pop-up" moduan agerrarazteko.





9 "Real Player" bistaratze programa edukitzea

Zabaltze Ekitaldia urrunetik ikusteko, Eusko Jaurlaritzak web kamera bat ezarri du ekitaldia egingo den aretoan; hala, ekitaldiko irudiak Internet bidez transmititzen dira, Real Player bistaratze programari egokitutako formatu batean.

Real Player programa doan eskura daiteke honako helbide honetan: www.realplayer.com.

10 Eskaintzak behar bezala kargatzeko eta igortzeko bidea egiaztatzea

Eskaintzen bortxaiezintasuna bermatzeko, aplikazioak programa osagarri bat (applet) deskargatzen eta exekututzen du, automatikoki; programa horrek eskaintzak zatitu, kodetu eta igortzen ditu, baita, gero, deskodetu eta berrosatu ere.

Deskarga behar bezala egiten ez bada, eragiketa horiek gauzatzean exekuzio akatsa gertatzen da. Horrenbestez, programa osagarria behar bezala deskargatu den egiaztatzea eta, deskarga behar bezala egin ez bada, programa berriro eskuz instalatzea komeni da.

- Programa osagarria behar bezala instalatu dugun jakiteko, honako urrats hauei jarraitu behar diegu:
 1. Windows (baldin eta zure eragiera sistema Windows XP bada) edo WinNT (baldin eta zure eragiera sistema Windows NT baldin bada) karpeta zabaldu.
 2. SecretS_ DLL.dll fitxategia karpeta horretan dagoela egiaztatu.
- Programa osagarria instalatzeko:
 1. Erabiltzailearen Laguntza Zentroari jakinarazi gorabeheraren berri, zentro horrek SecretS_ DLL.dll fitxategia posta elektronikoz bidaltzeko.
 2. SecretS_ DLL.dll liburutegia Windows (baldin eta zure eragiera sistema Windows XP bada) edo WinNT (baldin eta zure eragiera sistema Windows NT baldin bada) karpetan kopiatu.

